

2014ko Akordioaren Batzorde Paritarioaren bilera: Birkolokaziorako Lan-poltsaren sekulako porrota.

Joan den urriaren 10ean, Euskadiko Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan azken urteetako gatazka kolektiboa amaitzeko, Akordioaren sinaduraren urte bat bete zen.

Atzo, urriaren 13an, Akordioaren Batzorde Paritarioaren bilera egin zen. Bilera horren gai nagusia birkolokaziorako lan-poltsa izan zen, Akordioaren garrantzi handienetarikoa puntu bat. Joan den ekainean lan-poltsa funtzionamenduan jarri zenetik, ditugun datuak aztertu genituen eta oso negatiboak direla egiaztatu genuen.

Akordioa eskuan, ikastetxe guztiek betebeharrak pare bat bete zuten:

- Lan-poltsan zeuden Hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratatu behar zituzten.
- Lan-poltsara jotzea eskatzen zen perfiladun hautagairik zegoen ala ez ziurtatzeko. Kasu honetan, pertsona horiek urte bete edo luzeago kontratuen aukeratze-prozesuetan parte hartzeko eskubidea izango zuten. Aldi berean, enpresako ordezkariak sindikalak prozesua balioztatu beharko zuten.

Argi geratu da hori guztia ez dela bete. Sektorean urte beteko edo gehiagorako egin diren kontratazio guztietatik (errelebo kontratua, urte beteko eszedentziak...) 34 prozesu baino ez dira ireki; guztira 14 ikastetxe. Bestalde, horietariko batzuk ez ziren derrigorrezko, urte bat baino gutxiagoko kontratua zelako. Halaber, Ikastetxe batzuek bere eskakizunak (adibidez, ingelesa edo euskara kasuan) muturreraino eramaten dituztela ikusi da, hautagaiak filtratzeko. Agian ez dira konturatu beraien kontra itzuli daitekeela kontratatua izan den pertsonak prozesu hasieran eskatutako perfila benetan betetzen duen ala ez. Datu guztien artean, enpresa askoren utzikeriak atentzioa ematen du, altan eman ez direlako. Momentu honetan, Kristau Eskolak eman dituen datuen arabera, 115 ikastetxe altan emanda daude, besterik ez (Kristau eskolako 88/133 eta IZEAKo 27/43; Elizbarrutiko Ikastetxeak edo Ikasgiltza patronaletik ez daude altan emanda). Mintzaide gisa, patronalen sinesgarritasuna kolokan dago, sinatzen duten akordioak beraien kide askok betetzen ez dutelako.

Argi dago Patronalek ez dutela Akordioa bete eta gure kezka da zer egin behar ote dugun ikastetxe gehienetan eginiko kontratazio irregularrakin

Edozein kasutan, Batzorde Parekideak, bestelako neurri gogorragoak baztertu barik, zera erabaki du:

- programa informatikoa hobetzeko neurriak hartu
- Ikastexeei jakinaraztea zeintzuk diren euren betebeharrak lan poltsaren inguruan

steilasek bi kontu ipini ditu mahai gainean datorren bilerako. Batetik, sindikal-administratzailearen egoitza aldatzeko aukera (egun ELAren Bilbokoa) aztertze-leku neutroagoa bilatu nahian- eta, bigarrena, kontuan hartuz Eusko Jaurlaritzak sektoreko eragileekin batera foro tripartitua (administrazioa, patronalak eta sindikatuak) osatzeko eskaerari muzin egin diola zer nolako urratsak eman

Unean uneko informazioa zabaltzen jarraituko dugu

IRAKASKUNTZAN steilas

www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus